

## Trukeko ikasleei laguntza emateko Buddy programa

### Sarrera

Buddy Programa EHUren ekimen bat da, eta Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolak bere programa propioa kudeatzen du, UPV/EHUri atxikitako zentro gisa. Programa hau eskolaren beraren ekimena da. Nazioarteko bisitariei (Erasmus, Beste Norakoak, Latinoamerika, Europako Modulua) gure eskolan eta kulturari integratzen laguntzea du helburu.

Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolako (EHU) ikasleak izango dira *buddy*ak, beren esperientzia, ekimen pertsonal edo laguntasunak bultzatuta, iritsi berriei osasun-sisteman, harrera-gizartean, hirian eta campusean orientatzen lagunduko diete, borondatez.

Ekimen honen bidez, etorkizunean trukea egin nahi duten ikasleek, eurek joan nahi luketen unibertsitateko ikasleren bat ezagutzeko aukera daukate, eta hori lagungarria izan ahal zaie etorkizuneko egonaldi-rako. Era berean, aukera izango dute norako unibertsitateko hizkuntza lantzeko eta hango kultura eta bizimoduaz zerbait ikasteko.

Buddy programan parte hartzen duenak **0,2 kreditu** lortuko ditu mugikortasun programaren plazen esleipenean, modu berean hautazko kredituak lortuko ditu, **gehienez 3 kreditu**.

### ¿Ze nolako eginkizunak ditu Buddy-ak?

- **Atzerriko ikaslearekin jarriko da harremanetan, posta elektronikoaren bidez,** hona etorri aurretik, Vitoria-Gasteizko Erizaintza Unibertsitate Eskolan izango duen "BUDDY" a izango dela adieraziz.
- **Hitzordua egingo du atzerriko ikaslearekin iritsi bezain pronto** (autobus geltokian, hiriko tokiren batean edo campusean) lekartzakeen galderak



erantzuteko eta **Gasteizen egin beharreko lehendabiziko egunetan laguntzeko**, ahal bada hiria erakutsiko diolarik.

- Erizaintza eskolara eraman **koordinatzailea aurkezteko**. (Jagoba Zarandona)
- **Erizaintza-eskola erakustea**.
- Beharrezkoa izanez gero, praktikak egiteko lekura, ospitalera, osasun-zentrora eta abar laguntzea.

## Zein da hautazko kredituak lortu ahal izateko jarraitu beharreko prozedura?

1. *Zure bisitariak egiaztatuko ditu zuk egindako laguntza-zereginak*; horretarako, inkesta bat beteko du bere egonaldia amaitu aurretik. Inkesta hau, koordinatzaileak eskeiniko dio.
2. Programa zabaltzeko eta/edo sustatzeko, Idazkari Akademikoak (Alaitz Yoldi) bertaratze-ziurtagiri bat egingo du, eta zeregin horretan emandako orduak ezarriko ditu.
3. Orduen kontaketa egindakoan, Idazkari Akademikoak sinatutako egiaztargiri ofizial bat tramitatuko da, eta Buddy programan parte hartzeagatik zenbat kreditu lortu dituzun jarriko du han.
4. Zure *buddy* lana amaitutakoan (egokitu zaizun ikaslea joaten denean), azken dokumentu hori aurkeztu behar duzu Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskolako idazkaritzan, (Eva Lopez-i) zure kredituak amortizatzeko.

## Nola egin behar da *buddy* izateko eskaera?

[Eskaera-orria](#) bete orain. Hautaketa iraila eta maiatza hilabetetan egingo da.

## Zein irizpide hartuko dira kontuan *buddy* ikasleak hautatzeko?

1. Lehentasuna izango dute mugikortasun-programetan parte hartzeko interesa duten ikasleek.
2. Lehentasuna izango du kurtso goreneko ikasleak.
3. Ingelesaren ezagutza-maila balioetsi egingo da.



4. Libre egotea ikasle bisitaria hemen dagoen bitartean.
5. Lehentasuna izango du aurreko urtean eskaer-orria beteta duen ikasleak.
6. Ikasketa-espedientea.

### ***Informazio gehiago behar izanez gero...***

- Alaitz Yoldi, idazkari akademikoa eta Buddy programaren arduraduna.  
[alaitz\\_yoldi002@ehu.eus](mailto:alaitz_yoldi002@ehu.eus)
- Jagoba Zarandona mugikortasun-programen koordinatzailea.  
[jagoba\\_zarandona@ehu.eus](mailto:jagoba_zarandona@ehu.eus)
- Eva López Albaina mugikortasun programen idazkaria.  
[evamaria\\_lopez001@ehu.eus](mailto:evamaria_lopez001@ehu.eus)

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urtarrilaren 31